



Herriek Bere Eskola

Herriek Bere Eskola – EHBE – Nazioarteko informazio buletina
22. alea | 2007ko Urria / B | nazioarte@euskaleskola.org |
<http://www.euskaleskola.org/nazioarte/herriekbereeskola.htm>

IRAKASLE MOBILIZAZIOAK BIDERKATU DIRA

Azkeneko aste hauetan irakasleen mobilizazioak biderkatu dira Hego eta Ertamerikan. Kasu gehienetan aldarrikapenak antzekoak dira, gainera: pribatizazio eta liberalizazioaren ondorioak salatu eta lan-baldintza egokiagoak eskatzea.

Peru: Katedradunen greba mugagabea

Unibertsitate ezberdinetako katedradunek greba mugagabeari ekin diote. Hilaren 17an eskolak emateari utzi, kalera irten eta protesta bortitzak egin zituzten; poliziak bi irakasle zauritu zituen. Irakasleen eskaria maila bereko funtzionarioekin homologazio salariala eskatzea da.

Dos de Mayo plazara iritsi orduko polizia bortizki oldartu zen, Parlamenturako bidea moztuz, eta bi irakasle zauritu zituzten, euren artean Unibertsitate Irakasleen Federazio Nazionalako presidentea. Grebak %60ko jarraipena izan zuen Liman eta %100ekoa probintzia ezberdinetan. Trujillon irakasleek unibertsitateko sarrera blokeatu zuten eta ez zieten ikasleei sartzen utzi.

Kolonbia: Mobilizazio egunak

Urriaren 10etik 12ra Koalizio Demokratiko Handiak (ikasleak, sindikatuak, indigenak, beltzen taldeak eta nekazariak biltzen dituenak) mobilizazio egunak deitu zituen TLCaren aurka borrokatzeko. Lehenengo egunean 2 hildako eta 13 zauritu egon ziren, bigarrenean 7 zauritu eta hainbat atxilotu. Gobernuak FARCarekin lotzen ditu mugimendu guzti hauek. TLCaren aurkako protesta hauetan hezkuntzaren liberalizazioa salatzen da.

Honduras: Irakasleen protesta

Otsailetik euren soldata jasotzen ez duten 2000 irakasle atzera ziren kalera Urriaren 16an eta martxa egin zuten Ekonomia eta Hezkuntza idazkaritzetara bertako sarrerak oztopatuz. Ondoren institutu batean bildu eta asanblada bat egin zuten egoera aztertzeko asmoz. Hurrengo hilabetetan egoera ez bada konpontzen gerba orokorrera deituko dute.

Buenos Aires: irakasleen greba

Urriaren 17 eta 18an grebara deitu zuen FEB sindikatuak Gobernuak eskaintako baldintza ekonomikoak ez baitzituzten onartu. Gaiontzeko sindikatuak ados daude eskaintzarekin, baina FEBek eginiko kontsultan irakasleen %70a kontra agertu zenez mobilizaziora deitzea erabaki zuten.

Informazio gehiagorako:

Peru

http://www.lpp-uerj.net/olped/cined/banco/exibir_noticias.asp?codnoticias=25744

http://www.larepublica.com.pe/component/option.com_contentant/task.view/id.183708/Itemid.0/

Kolonbia

http://www.lpp-uerj.net/olped/cined/banco/exibir_noticias.asp?codnoticias=25739

http://www.pacocol.org/es/Inicio/Archivo_de_noticias/Septiembre07/179.html

Honduras

http://www.lpp-uerj.net/olped/cined/banco/exibir_noticias.asp?codnoticias=25653

Buenos Aires

http://www.lpp-uerj.net/olped/cined/banco/exibir_noticias.asp?codnoticias=25715

SARKOZYK ESKOLA MAPA ALDATU NAHI DU

Nicolas Sarkozy frantziar estatuko presidente eskuindarrak orain arte egon den eskola maparekin bukatu nahi du, "gurasoen erabakitze eskubidea" oinarri moduan hartuta. Appel pour une école démocratique (APED) Belgikako elkarteak kritika bat egin dio bere asmoei.

Berez eskola mapa kendu eta bakoitzak nahi duen eskola hautatuz suposatu daiteke desberdintasun sozialak kenduko direla (auzo pobreetako biztanleak gaur egun derrigortuta baitaude euren eskolan ikastera), baina Sarkozyk proposatutako planarekin justu kontrakoa gertatuko litzateke. Hau demostratzeko hainbat zenbaki egi dituzte, eta formula ezberdinekin Europako herrialde bakoitzean eskolak berdintasuna lortzeko jokatzen duen papera aztertu.

Adibide bat jartzearen, Finalndia eta ondoren Italia, Espainiar estatua, Portugal eta Norbogia dira jatorri sozialarekiko independente eskola arrakasta handiena lortzen dutenak. Belgika eta Alemanian ematen da desberdintasun handiena, Frantziar estatuan 4. handiena delarik. Dau hauek eskola hautatzeko eskubideareki parekatuz orokorrean geroz eta eskubide handiagoa orduan eta desberdintasun sozial handiagoak daudela ikusten da. Sarkozyren bideak, beraz, desberdintasunak areagotzekoa da, eta ez alderantziz, informe honen arabera.

Informazio gehiagorako : http://www.ecoledemocratique.org/article.php?id_article=414

ATENASEN BILDU DA EUROPAKO IKASLE FOROA

Europako Ikasle Foroa, Europar Goi Hezkuntza Esparruaren sorreraren aurrean, ikasle mugimendu desberdinek abiatutako borroken bilgune izan asmoz sortu zen. Bakaiku izan zen, 2006.urtean, lehenengo topalekua, bertan, unibertsitate sistema aldaketan ondorengo etorritako nazioarteko testuinguru politikoaren irakurketa egin zelarik. 2007.urtean, Parisen bildu zen foroa, Bologna Prozesuaren aurkako borroka nazioartera zabaldu asmoz. Aurtengoan, Atenasen bildu gara ikasleak, jada ezartzen hasia den unibertsitate eredu berriaren aurka, Europa mailako estrategia bateratua izan delarik eztabaidagai nagusi.

Europako Ikasle Foroaren sorreratik hainbat izan dira parte hartu duten herri eta ikasle antolakundeak: Galiza (AXIR), Països Catalans (SEPC), Alemania, Norbogia, Erroma (Colectivi de la universidad de Spienza), Portugal (Bloco de Esquerda), Frantzia (JCR), Andaluzia (ACME), Madril (CEM), Ingalaterra, Grezia (EAAK, CRFI, SSS, OCDE, LAL...) eta Euskal Herria (Ikasle Abertzaleak), besteak beste.

Ostiralean hasi eta igande bitarte burutu den foro honetan adostutako adierazpenean, ikasleok berretsi egin dugu, azaroaren 17an, ikasleen nazioarteko egunean, mobilizatzeko deialdia. Tokian tokiko borroken garrantzia azpimarratuz eta, era berean, sistema neoliberal honen aurkako Europako ikasle mugimenduen estrategia bateratuaren baitan kokatuz egun hau. Horrez gain, 2009.urtean Lovainan, Belgika, burutuko den europar hezkuntza ministroen bilkura kokatu dute hurrengo inflexio puntu gisa, izan ere, Bologna Prozesuaren ezarpeneko azken puntuak adosteko asmoa baitute bilkura horretan.

Horrenbestez, unibertsitate eredu neoliberalaren aurkako frontea gorpuztearen garrantzia eta agintari desberdinen aurrean, ikasle kolektiboaren hitza errespetarazteko exijitza dute helburu ikasle mugimendu desberdinek. Hurrengo topalekua, beraz, Lovaina.

Informazio gehiagorako:

<http://www.gaztesarea.net/info/berria.php?id=9239>